

Berria txapelketa, Andoaingo pilotarien erronka berria

Artola-Mujika, Osa-Elizegi eta Eskudero-Aizpuru izango dira Andoaingo ordezkariak.

Herriartekoan Ataun aurkari indartsuaren aurka aukerarik gabe geratu eta gero, Andoaingo taldeak erronka berriari ekingo dio asteburu honetan. Eskuz binaka kadete, jubencil eta nagusien mailan jokatzen den Berria txapelketa hastear da, Euskal Herriko elkarte garrantzitsuenen parte hartzeare-



Andoaingo Gaztelekuk Berria txapelketari ekingo dio, herrian bertan.

Larunbat honetan arratsaldeko 18:30ean Ultzama taldearen aurka arituko dira Arrate pilotalekuan

kin. Aurreko bi urteetan andoaindarrek txapelketa polita egin dute, finalurreraino iritsiz. Gaztelekuk zaletuei agertzeko dei egin die: "Andoaindarrei partida ederrak ikustera eta gure taldea animatzera dei egiten diegu".

[KIROLAK, 11. ORRIALDEA]

Igoera jokoan dago



Urnietako senior mailako mutilek igoerako play-offaren azken partida jokatuko dute Bizkaian, igandean.

[KIROLAK, 11. ORRIALDEA]

Gazte festak

Maiatzaren 26an hasi eta 28ra bitarte hitzordu ugari Urnietan.

[AGENDA, 12. ORRIALDEA]

Udarako begirale bila

Goazen jolastera 2017 udako ekimena San Juan jaiak amaituta abiatuko da, eta haurren aisialdiaz ardurtzeko begirale bila dabilta. Udalak deialdia egin du.

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]

San Isidro eguna eskualdean



Tradizio handiko ospakizuna da Urnietan, baserritarren eguneko.



Andoaingo baserritar batzuk bazkaria egin zuten Oianume jatetxean.

Purritx, Porrotx eta Marimotots



URNIETA

MAIATZAK
26
OSTIRALA

17:30

EGAPE IKASTOLAKO
JOLASTOKI ESTALIA

Aiurri

SARRERAK DAGOENeko SALGAI: URNIETA XAUXAR, BIKAIN KAFETEGIA | ANDOAIN ERNAITZA, AIURRI

MAIATZAK 21
IGANDEA

**IGANDE
HONETAN**

musika
zuzenean.com

JAIALDI AKUSTIKOA

URNIETA / SAROBE ARTE ESZENIKO GUNEA / 19:00

MICE
OLATZ SALVADOR
ETXE
PELAX
IKER LAUROBA
LEAR
TRISTTAN MOURGUY
INUN
NIRE
MARIA RIVERO
LIBE
NAHIA ZUBELDIA

SARRERA
Aurrez 8€
Egun berean 10€


ANTOLATZAILEA

LAGUNTZAILEAK



Berasategik eta bere ikasleek saioa eskainiko dute, asteburuan

“Etxola majikoa” larunbatean Lekaion



Joxemari Berasategi Urnietako aktore eta zuzendaria.

Erraza da **Joxemari Berasategi** Urnietako aktore eta zuzendari nekaezina proiekturen batean murgilduta aurkitzea. Berdin antzerkian, zineman edo telebistan. Interpretazio munduan, edota irakasle modura. Gaurkoan, berak idatzi eta zuzendu duen “Etxola majikoa” antzezlanaren berri eman dio Aiurri.

“Etxola majikoa” antzezlana prestatzen ari zara Egape ikastolako ikasleekin...

Joxemari Berasategi: Bai, ilusio handiz Lehen Hezkuntzako umeekin ari naiz lan hau prestatzen, 1. mailatik hasi eta 6. mailarainoko 25 ikaslerekin. Bi taldetan banatzen ditut, obra lantzeko garaian, 1., 2. eta 3. mailakoak alde batetik eta 4., 5. eta 6. mailakoak bestetik. Txikienentzat beraien lehen esperientzia izango da, eta heldu-geagoak direnak aurrez ere antzezlanaren bat egindakoak dira.

Zaila al da adin horretako umeak antzerki mundura erakartzea?

J.M.B.: Gehienera antzerkia ezaguna egiten zaie, aurrez lantxoren bat egin dutenak gustura errepikatzen dute, eta lehen aldiz datozenak ere oso pozik ikusten ditut antzerki munduan murgilduta.

Esfortzu handia eskatu al dizu antzezlana hau prestatzeko?

J.M.B.: Badirudi zaila dela sei urteko umeekin antzezteko be-

“Obra xarmangarria eta dibertigarria da 4 urtetik 80 urtera bitarteko edonorentzat. Bertaratzen direnak ezusteko ona jasoko dute”

harrezkoa den kontzentrazioa lortzea, baina lortzen dugu. Obra honetan, adibidez, musikatik abiatuta bakoitzak bere pertsonaiari forma ematen dio. Badut eskarmentua umeekin eta saiatzen naiz guztiei protagonismo berdina ematen, eta normalean jasotzen ditudan ezustekoak positiboak izaten dira.

“Etxola majikoa” obraren nondik norakoak adieraziko al zenukizue?

J.M.B.: Gidoia nik egindakoa da. Lan korala da. Musikarekin asko jokatzen dut, musikal bat dela esan dezakegu. Obraren agertzen den talde bakoitzak bere musika propioa du. Bi zaitan banatu dugu lan hau, aurrenekoak 15 minutu inguruko iraupena izango du, eta bigarrenak ordu erdikoa. Baina inportanteena, gaztetxoaren inplikazioa lortu dugula, gogo onez etortzea.

Urduritasuna nabari al zaie larunbateko emanaldiaren atarian?

J.M.B.: Seguru momentua iristean tximeletak izango dituztela urdailean, baina pixkanaka lantzen ari gara obra modu di-

“Baduteskarmentua umeekin eta saiatzen naiz guztiei protagonismo berdina ematen; normalean jasotzen ditudan ezustekoak positiboak izan dira”

bertigarri batean. Ikastolako antzokian, dagoeneko bi aldiz eskaini dugu ikaskideentzat, larunbatean beste urrats bat emango dugu herritarren aurrean antzeztuz, eta ekainaren 16an berriro eskainiko dugu Saroben. Horrela beraiek eta neronek ere aukera izango dugu obraren eta pertsonaia bakoitzaren eboluzioa ikusteko.

Arropak, eszenografia eta abar nola antolatatu dituzue?

J.M.B.: Hor ari gara denon artean lantzen. Modu xumean egin izanagatik hori ere beste atal inportante bat baita.

Zein hitzekin gonbidatuko zenukizue urnietarrak?

J.M.B.: Obra xarmangarria eta dibertigarria da 4 urtetik 80 urtera bitarteko edonorentzat. Bertaratzen direnak ezusteko ona jasoko dute. Irribarre batekin aterako dira Lekaion.

ETXOLA MAJIKOA SAIOAK URNIETAN

Maiatzak 20, larunbata.

18:00. Lekaio. Dohainik.

Ekainak 16, ostirala.

17:00. Sarobe. Dohainik.

Zanpatuz ttiki egun arrakastatsua Muliskon



120 lagun inguru elkartu ziren larunbatean.

Zanpatuz mendi elkarrekin urte osoan jende gehien erakartzen duen irteera antolatu zuen pasaden larunbatean: **Zanpatuz Ttiki Eguna**. Guztira 120 bat lagun elkartu ziren Besabin goizeko 09:30ean, guztiak Mulliskon elkartzeko. Irteerako III. ekitaldia izan zen, eta aurreko bietan Xoxokako eskola zaharrea bukatu zen, euriagatik. Larunbatean lainoak bai, baina euririk ez zuen egin, eta irteera giro onean bukatu ahal izan zuten Mulliskon bertan, haimaiketako oparo batekin (Muazpi eta Adarra harategiek, eta Gaztelo okindegiak emandako produktuei esker).

Talde bat, 5 urtetik gorako haurren, Onddirantz abiatu zen Besabitik, eta haur txikiagoena Muniskorantz. Muniskora abiatu ziren txikienek altxorren bila jokoan parte hartu zuten, eta helmugara iritsita, altxorra bilatu zuten. Haur guztiek opari bete poltsa jaso zuten, eskuargia, eta buff edo erloju batekin (Sabadell, Caixa Bank eta Ibaimendi kirolak-en laguntzari esker). Gainera, agertu ziren heldu guztien artean bi mailot zozketatu ziren. Eguerdialdera, sabela ondo beteta, guztiak Besabira itzuli ziren.

HURRENGO IRTEERAK

Zanpatuz mendi elkarrekin prest ditut udako oporraldia baino lehenago antolatuko dituen bi irteerak. Lehenengoa Añamendi mendira izango da (Anie), ekainaren 10ean,

larunbatez. Irteera goizaldeko 5:00ak aldera izanen da Matxo tabernako bus geltokitik, eta itzulera arratsaldeko 19:00ak aldera. Añamendik 2.507 metro ditu, eta Eraizeko mendatetik joan-etorria 6-7 ordukoa da. 700 metroko desnibela gainditu behar da, eta litekeena da elurra egotea. Mendiko arropa eramatea komeni da, badaezpada ere.

Xabier Ansa gaztea izango da irteerako arduraduna. Izen-emate epea zabalik dago, dagoeneko. Ikasmin akademian, eta Xauxar eta Kantoi tabernetan egin ahal izango da, ekainaren 2a arte. 55 pertsonentzako tokia izango da, eta gehiago apuntatzen badira, itxaron-zerrenda egingo da. Zanpatuz-eko bazkideek 10 euro ordaindu beharko dituzte, eta bazkide ez direnek, 15 euro. Norberak egunerako janaria eta edaria eraman beharko ditu.

Uztaileko irteera Joxerramon Jauregik antolatuko du. Asteburu osoa izango da, hilaren 15 eta 16an. Larunbatez, Urnietatik Astun eski estazioa joango da autobusa. Handik, eta oinez, Ayouseko aterpera eta Bious-Artigues lakura, Midi d'Ossau mendi ikusgarria inguratuz. Pueyo de Jaca herrian hartu da ostalua, eta igandean, La Sarra urtegitik Respumoso aterpera joan-etorria egitea da asmoa, bazkaldu eta etxera bueltatzeko. Añamendiko irteeraren ondoren irekiko da izen-emate epea.

Udal Musika Eskola

Zabalik dago Lurdes Iriondo Musika Eskolako aurrematrikula egiteko epea, datoren maiatzaren 26an amaituko dena. Aukera zabala da: musika tailerra, musika hizkuntza, akordeoia, pianoa, elizako organoa, trikiti-xa, panderoa, biolina, klarineta, tuba, bonbardinoia,

saxofoia, tronpetak, perkusioa eta instrumentu taldeak. Aurrematrikularen ondoren, plazak esleitu eta matrikulak gauzatuko dira.

Informazio osoa Urnieta.eus webgunean eskuragarri dago: Ordainketak, hoberiak, ebaluazioak eta kontzertuak...

MAIATZAK 15, ASTELEHENA

San Isidro eguna Urnietan

Maiatzean, tradizio handiko bi hitzordu garrantzitsu izaten dira baserri giroko urnietar askorentzat: Azkorteako erromeria maiatzaren 3an eta Isidro santuaren ospakizuna maiatzaren 15ean.

Astelehenean mezarekin, hamaiketakoarekin eta bertso saioarekin azken urteetako egitaraua biziberritu zuten. Eguna osatzeko bazkaria egin zuten Oianume jatetxean.

Agin Laburu eta Unai Agirre bertsolariek gatza eta piperra ipini zioten Baserritarren eguneko ospakizunari, bereziki Lekaion botatako bertsoekin. Horra, hamaiketakoaren ostean abestutako zenbait bertso:

ELIZA GAITZAT HARTUTA

Unai Agirre:

Hara nondikan harrapatu nauk
neronek ezin igarrian.
Baserritarrak babak eskuan
eta neke latzak gerrian.
Jakin zak, Agin, zer entzun dedan
Urnietako herrian:
gero ta jende gutxio ziok
elizan ta baserrian.

Agin Laburu:

Hemen garesti omen dauzkagu
lurra bezala zerua,
ta urritua baserri eta
elizako bezerua.
Hik zer nahi dek ba, guztia badek
hire mouko generua.
Hau ere agronomua degu,
hori bai, injenierua.

Unai Agirre:

Agin, laguna, kontu hoiekin
Unai ez liteke mindu.
Hala ta ere, hemen ez bedi
injenierua sumindu.
Gure joera zer izaten dan
esplikatzan alegindu:
guk egiten degu lan gutxi ta
al dala asko agindu.

Agin Laburu:

Asko agintzen dek hik
injeniero gisan.
Baino agindu soilik
ezin da bizitzan.
Esan dek jende gutxi
zegola elizan.
Gaur arte azkenekoz
noiz etorri hintzan?

Unai Agirre:

Ai!, enauk atrebitzen
egia esaten.
Orain diat zapaldua,
nola ez nuen aurten.
Gainera ez ditugu
zita onak izaten.
Azkena zapaldu nun
entierro baten.

Agin Laburu:

Entierrotan bada
nahiko komeria.



Oianume jatetxearen kanpoaldean taldeko argazkia atera zuten bazkarira hurbildutako hainbat lagunek.



Agin Laburu eta Unai Agirre bertsolariak, Lekaion.



Meza eta gero hamaiketakoa egin ohi dute Lekaion.

Baino nere lagunak
badu aurpegia.
Ez dakit orain ere
esan dun egia,
entierroa ez da jungo
ez bada beria.

Unai Agirre:

Unai zirikatze
badezu gogorik,
baina burutik kendu
intentzio horrik.
Agin, zuk ez didazu
uxatuko lorik.
Oraindik hiltzeko
nik ez det asmorik.

Agin Laburu:

Hi, lasai, nahiz ta jende
gutxi zan elizan.
Ez haut hartuko orain
halako palizan.

Beti hamaiketako ta
bertso peskizan.
Ez, lasai, hortarako
presarik ez izan.

Unai Agirre:

Horrelakotxia da,
bai, gure bizitza.
Bihar ez degun gisan
hartzen degu hitza.
Ez nuala elizara
ta bere paliza.
Hutsa, bera igandero
joango balitza.

Agin Laburu:

Ni ere enak, noski,
horren zerbitzala.
Aspaldi ez nin hartu
bertako itzala.
Baino banekin gutxio
etortzen nintzala.

Nik nahikoa egin nin
umea nintzala.

Unai Agirre:

Esplikatuko diat
zuzen-zuzenian.
Garbi esan behar dit
nire izenian.
Ez nian ezer egin
gazterik nintzarian.
Jauna zerbituko dit
zartzen naizenian.

Agin Laburu:

Hemen bakoitzak sartu
norbere tornuan.
Jainkorik badago,
han zegok tronuan.
Hik txalet bat behar dek
hire terrenuan,
ta lurra eresia
dakat infernuan.

ALKATEA GAITZAT HARTUTA

Unai Agirre:

Elkarri ezin egin
beti ahalegina.
Atzera begira ere
jarri naiz jakina.
Hirukote bat bada
aipatzeko adina.
Hor dago alkatea,
baserritar fina.

Agin Laburu:

Baserritar fina da
klaro, klaro, klaro.
Baratzian ibili
liteke oparo.
Baino nahiago egin
arduari trago.
Jendiak parra egin du,
ez det esan gehiago.

Unai Agirre:

Ikastolaren festan
serio-serio,
jubilatutan berdin,
enaiz oso fido.
Akto guztitan dabil
jetsi eta igo.
Honi saltsa guztiak
tokatzen zaizkio.

Agin Laburu:

Ni len alkateari
hor hasi natzaio
egin omen ditula
bi bilera saio.
Goizeko zortzietan
karpetak arraio!
ta zortziak oso goiz da
iruditu zaio.

Unai Agirre:

Lenago aipatu degu
guk baserritarra.
Baina, arren, alkatea
ez zaie hasarra.
Honen ofizioa
ere ez dek earra,
denei arpegi ona
ipini beharra.

Agin Laburu:

Hemen hartuagatik
hasieran kargu,
bertsoakin ziri ta
loria dakargu.
Arpegi ona jartzeko
hamaika enkargu,
hortarako ere balio
egin behar du.

Jai batzordeak herritarrek egindako proposamenak jaso ditu

San Juan jaietan pregoia irakurtzeko hautagaiak

Herritarrek inoiz baino proposamen gehiago luzatu dituzte aurtengo San Juan jaietarako emateko. Andoingo hemezortzi elkarte, ikastetxe edo pertsona proposatu dira aurtengo, pregoia irakurtzeko. Jai Batzordea osatzen duten taldeei dagokie hautagaietako bat hautatzea, bozka bidez. Hona jasotako proposamenak:

- **Udal musika eskolako banda.** “Bandaren 20 urteurrenean herriaren alde, musikaren alde eta herriaren izena lau haizetara zabaldu dutelako. Herriaren omenaldia merezi dute, Sanjuanetan eta urtean zehar egiten duten lanagatik”.
- **Jon Gaztañaga.** Errealeko lehen mailako taldean jokalaria izatea lortu duelako.
- **Rikardo Arregi kultur taldea.** “Beraiek eragin zutelako gaur egungo festaren antolaketa nagusia: sua plaza erdian jarri, dantza bere inguruan, kanapiak, txalaparta...”.
- **Mari Karmen Zuaznabar eta Pello Uranga.** “Ekainaren 23an San Juan suaren piztueran, txalaparta jotzen dute urtez urte. Famili artean jarraipena eman diote ohitura horri eta tradizionala den instrumentuari, txalaparta, bere protagonismoa ematen diote egun berezi horretan.”
- **Urki dantza taldea.** Andoingo jaietan zein bestelako ekitaldietan parte hartzeaz gain, Euskal Herriko folklorea zabaltzen lan handia egiten ari delako”.
- **Alberto Agirre abesbatza.** “Urte asko daramatza herrian lanean eta Sanjuanetan, urtero, hutsik egin gabe, suaren inguruan, bere ahotsak jarri izan dituzte San Juan zortzikoa kantatuz eta azken urteotan Andoingo ereserkia ere. Nahiz eta orain talde handia ikusi oholtzaren gainean, partaidetza txikiagoa zenean, beraiek han egon izan dira beti”.
- **Manuel Larramendi Kultur Taldea.** “Aurtengo 25 urte bete-



Iaz Ontza elkarteak irakurri zuen jaien hasierako pregoia.

Jai batzordea osatzen duten taldeei dagokie hautagaietako bat hautatzea

tzen dituen talde honek euskararen normalkuntzaren alde egin duen lanarengatik”.

- **Joxe Mari Oartzabal Beloki.** Andoindar musikari eta konpositore, 20 urteko lana hiru grabaketetan jasota dauzkanak. Andoingo banda eta abesbatza errepublikanoan zuzendari dena”.
- **Joxema Setien.** Txistulari eta Urki dantza taldean egindako lanagatik”.
- **Leon Albeniz Iruntxiberri.** “Baserriko morroi, ileapaintzaile, zurgin, tabernari, liburu banatzaile, aizkolari, segalari, korrikalari, kirolen erakusle... Herri kirolek izan duten apustularirik famatuena da. Bere oroitzapenak idatzita utzita ditu euskara jatorreko liburu batean. Herri kiroltan ofizioa erakutsi duen maisu bat dela ere esan daiteke. Andoingo Sanjuanetako Herri Kirolak antolatzeke garaian ere konfiantza izaten den pertsona”.
- **Gure Esku Dago** plataforma. “Behar-beharrezkoa delako

egiten ari diren lanagatik eta gainera oihartzun pixka bat eman behar zaielako”.

- **Leitzaran institutuko ikasle, irakasle eta guraso taldea.** “25 urte betetzen ditu aurtengo eta urte hauetan zehar eskola publikoaren erreferente bakarra izan delako. Eta epealdi labur honetan izandako gorabeheretan bere eskaintza zabaldu eta sendotzen joateko gaitasuna izan duelako”.
- **Maria Soriano.** “Kirolari eman dion laguntzagatik”.
- **Los Rubi.** “Santakruzetan hain momentu onak pasa arazi zizkigutelako”.
- **SEGA San Estebango gazte asanblada.** “Beraien auzo eta orkorrean herriarentzat egiten duten lanarengatik”.
- **Maria Luisa Etxeberria.** “Urte askotan Euskalduna mendigoizale taldean lanean aritua da, baina beti itzalean”.
- **Manex Mendizabal.** “Andoain herriarengatik asko egin du, konpromiso ikaragarria dauka eta bere bizitzako ametsa da”.
- **Joxe Ramon Berrondo.** “Oso tronpetalari ona delako”.
- **Auzoetako Jai batzordeak.** “Urtero Andoingo auzoetako bizi-erata emateagatik”.

Gurasolagunen azken hitzordua, Ludotekan

Bidaide izeneko egitasmoarekin, Gurasolagun ekimeneko partaideek hainbat jarduerara burutu dituzte ikasturte osoan zehar. Beti ere euskara ardatz hartuta. Ikasturtea amaitzen ari da, eta

maiatzaren 26rako Xaboi tailerra antolatu dute, haur eta gurasoentzat. Azken jarduerara denez, zozketa egingo dute parte hartzaileen artean. Sariak izango dira, berraz, bertaratzen direnentzat.

Begiraleak behar dira

Andoingo Udalak antolatzen dituen **Goazen Jolastera 2017** udaleku irekietan begirale eta koordinatzaile gisa lan egiteko begiraleak behar dira. Txandak ekainaren 26tik uztailearen 14ra eta uztailearen 17tik uztailearen 28ra burutuko dira. Hautaketa prozesuan parte hartzeko baldintzak hauek izango dira: 18 urte izatea, euskara jakitea eta be-

girale titulua edota hezkuntzarekin zerikusia duen karrera bat bukatua izatea.

Izena emateko kurrikulurik gogoratu gero, goazenjolastera@ttakun.eus helbide elektronikora bidali behar dira, maiatzaren 26a baino lehen.

Info gehiago: 943 371 448 telefono zenbakian edota goazenjolastera@ttakun.eus helbide elektronikoa.

Kantari gazteen kontzertua



Bastero kulturguneko ekitaldi aretoan Udal musika eskolako abesbatza gazteak kontzertua eskaini zuen, Katrin Iturralderekin zuzendaritzapean. Myriam Ulanga piano-jotzailearekin laguntzarekin, kantatu garaikide ugari eskaini zituzten. Besteak beste, “Gaztelugatxe”, Zea Mays taldearen “Negua joan da ta”

eta Mikel Urdangarinen “Usaiak” euskal kantuak. Nazioarteko musikagintzari ere tartea eskaini zioten Michael Bublaren “Home”, Coldplayren “Viva la vida” edota Elton Johnen “Your song” kantuen bitartez. Ikusleek txalo artean agurtu zituzten kantari gazteak, 14 kantu eskaini eta gero.

Telefono bidezko inkesta

Mekataritza berritzeko plan berezia lantzen ari dira Andoain, eta asteazkenetik aurrera Siadeco aholkularitza-enpresak 400 inkesta egingo ditu herriko beste hainbeste

etxebizitzatan. Udalak igorri duen oharraren arabera inkesta horiek telefonoz egingo dira, “aleatorioak eta, noski, datu prozesamendu erabat anonimoa jarraituz”.



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

JOAN ZEN OSTEGUNEAN JASO ZUEN SARIA, BASTERON ANTOLATUTAKO EKITALDIAN

Uribek 111 Akademiako irakurleen saria jaso zuen

Larramendi Bazkunak sustatu duen 111 Akademiaren, Euskal Herri osoko berrehun literaturzaleren arteko urteko libururik gogokoena eztabaidatu eta bozkatu egiten dute. 2016an zehar argitaratu ziren li-

buru guztien artean, aurtengoan saria Kirmen Uriberi ematea erabaki dute "Elkarrekin esnatzeko ordua" eleberriagatik. Idazlea bera etorri zen, pozarren, saria jaso eta esker ona adieraztera.



Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako sailburu-orde Miren Dobaran, Kirmen Uribe idazlea, Ana Carre-re Andoaingo alkatea eta eta Eusko Jaurlaritzako Kultur eta Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultur diputatu Lorea Bilbao.

Esker onez jaso zuen saria **Kirmen Uribe** idazleak, Andoaingo Bastero kultur-gunean: "Ikaragarrizko ilusioa egin dit sari hau jasotzek. Eskerrak eman nahi dizkiet hainbat jenderi, hemen daudenei eta hemen ez daudenei. Aita ez dago, Aitzol Aramaio... Baina hemen bazaudete lagunak ere, eta eskerrak amari, nire hiru umei eta Nereari batez ere, hor egotearren". Lehenxego 'Elkarrekin esnatzeko ordua' liburuaren hainbat pasarte irakurri zituzten 111 Akademiako hainbat kideek nahiz era-

kundeetatik gerturatutako ordezkariak. **Jon Unanue** Larramendi Bazkuneko lehendakariak, bestalde, akademiakideek urtean zehar liburu sarituaren inguruan igorritako hainbat iritzi irakurri zuen. Irakurraldiei eta ekitaldiari, oro har, musika doinua erantsi zieten Audience musika taldeko kideek.

Saria jaso ondorenean, euskara maite duen familia batetik datorrela azaldu zuen Kirmen Uribe idazleak eta, euskaraz ikastea justua ez zen eta legearen barruan sartzen ez zen garaikoa dela gogo-



Audience taldeko kideek musika ipini zioten sari banaketa ekitaldiari.

ratu zuen bere hitzaldiaren hasieran, "diktadorea bizirik zegoela jaio nintzen eta orain hemen nago euskaraz idazten eta euskara mundura zabaltzen. Baina ez ditut ahaztu nahi aurretik egon diren idazle horiek, nik ikaragarri maite ditudanak, eta atzetik datozenak ere bai; gazte-txoak. Euskal literaturaren munduaren barruan katebegi bat naiz eta umiltasun hori beharrezkoa dugu. Liburu onak ateratzen dira, beste hainbat eta hainbat liburu ateratzen direlako. Euskal literatura ez du salbatuko idazle batek edo liburu

bakar batek. Etengabe ateratzen diren liburu horiek salbatuko dute, lanean ari diren idazle horiek, argialetxeek, prentsak, zuek bezalako irakurleek... Denok dugu balio bera, denok gara taldekide euskal literaturaren mundutxoan.

Eskerrak benetan Letamendi-Urresti familiari, beraien historia kontatzeko aukera eman didalako. Liburutik politena jendeak liburu bere egin duela izan da eta bere familiarekin gogoratu dela nahiz eta familia jakin baten historia kontatu".


111AKADEMIA:REN SARIA 2016

www.aiurri.eus
webgunean:
bideo-sorta
eta argazkiak

Idazle saritua:
**Kirmen
Uribe**



Elkarrekin esnatzeko ordua
eleberriagatik



Auzotarrek azaldutako jarrera txalogarria nabarmendu dute

Santa Krutz jaietako antolatzaileen balorazioa

Jai batzordea
Postontzia

“Santakruzetako jai batzordeak pasa berri diren festen balorazioa egin ondoren, eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu auzotarrei, laguntzen ibili zareten guztioi, ekintza ezberdinetan parte hartu duzuen guztioi, ekitaldiak prestatzen eskua bota duzuen guztioi, koadrillei, txoznei, elkarteei, tabernari, dendariei eta laguntza eman duzuen enpresa guztiei.

Aurtengoan festetako ekintzatan egon den parte hartzea nabarmentzeko izan da, oso erantzun ona jaso baitute antolatu ditugun ekintza guztiek. Eta ez auzotarren aldetik barrik, baita Andoingo herritar guztien aldetik ere.



Tamalez, arazo txikiekin topo egin dugu. Ekiditen zailak izaten direnak: komuneren erabilpen eza edota zikinkeria erabilaketa. Hala ere, arazo hauen aurrean auzotarrek azaldutako jarrera txalogarria izan dela esan behar dugu.

“Aurtengoan parte hartzea nabarmentzeko izan da, antolatu ditugun ekintza guztiek oso erantzun ona jaso baitute

Soberan izan dira aurtengo jaietan labankadak ematen ibili direnak eta liskar eta borrokaldietan ibilitakoak. Jarrera horiek jaietan dugun giro ona nahastu eta izorratu egiten baitute.

Eta, bukatzeko, gaizki egingakoagatik barkamenak eskatzen dizkizuegu eta ongi egingakoak gogoan hartuko dituzuelakoan, hurrengo urtera arte.

Gora Santakruzak!!”.

San Isidro egunarekin bazkaria egin zuten Oianumen

Baserritarren eguna



Oianume jatetxearen kanpoaldean taldeko argazkia atera zuten bazkarira hurbildutako hainbat lagunek.

Aurrekontu irekiak aurkeztu zituen Aldundiak



Imanol Lasa Basteron, Andoingo hainbat eragilerekin batzartuta.

Urnieta tik abiatu eta gero, partaidetzaren aldeko kanpainak **Andoingo** Goikoplazan geldialdia egin zuen joan zen astelehenean. **Imanol Lasa** Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioko diputatuak poza agertu zuen Andoainen jasotako erantzunarekin: “Herritarren beharrei pultsua hartu, eta haien iradokizunak pertsonalki jaso eta entzun nahi ditugu. Aldundia zertan aritzen den azaldu nahi dugu xehetasun guztiekin, datuen bitartez esplikatzu nolako garrantzia duen Aldundiak Gipuzkoaren egunerokoan, jendea parte hartzerantz animatuz”.

Egonaldia baliatu zuen **Cari-tas**, **Guritze Gorria**, **Alkoholiko Anonimoak** edo **Zuena** emakumeen elkartearekin batzartzeko: “Elkarte ehuna osatzen dutenengandik gertu egon nahi dugu. Ondo eza-

gutzen dute errealitatea eta balio handiko lana egiten dute. Lan hori erraztu, eta aurrekontuak aberastu nahi ditugu haien eskarmentuarekin”. Topaketa hori eta gero, **Imanol Lasa Ana Carrere** alkatearekin bildu zen.

Karpara joateko aukerarik eduki ez zuten andoindar guztiek euren proposamenak aurkez ditzakete ekainaren 30era arte, etxeko banatutako esku orria bete eta udaletxeko erregistroan entregatuz edota internet bidez parte hartuz gipuzkoa.eu/partaidetza webgunean, ‘Aurrekontu irekiak’ atalean.

Galdera bikoitza da: Gipuzkoaren etorkizuneko erronka nagusia zein den zehaztea, eta Aldundiak zein arlotan inbertitzea nahiko lukeen adieraztea. 16 urtetik gorakoek parte har dezakete.



Goikoplazan ipnitako karpan herritarrek ekaprenak egin ahal izan zituzten.



AIURRI

EGUNEROKOAREN
JARRAIPIEN
ZEHATZA
WEBGUNEAN





7 EURO. AIURRIN SALGAI

Purritx, Porrotx eta Marimotots



URNIETA

MAIATZAK
26
OSTIRALA

17:30

EGAPE IKASTOLAKO
JOLASTOKI ESTALIA

Aiurr:

SARRERAK DAGOENeko SALGAI: URNIETA XAUXAR, BIKAIN KAFETEGIA | ANDOAIN ERNAITZA, AIURRI



KIROL ALBISTEAK

Andoaingo eskolaren ez ohiko bizikleta irteera

WNT nazioarteko enpresak bilkura berezia egin zuen aurreko asteburuan, Buruntzaldean elkartuz estatu mailan dituen lankide eta bidelagunak. Larunbat goizean, bizikleta irteera antolatu zuten.

WNT multinazionalak, Andoaingo Mendi enpresak eta Andoaingo Txirrindulari Eskolak elkarlanean antolatu zuten enpresa mundua, mekanizazioa eta txirrindularitza batzeko helburuarekin.

Bi taldetan banatuta, Andoaindik abiatu eta Lasarte-Oriatik barrena Zarautzera joan ziren. Getariatik Garate igo eta Zumaiara iritsita, berriro Zarautzera atzera egin zuten Aiatik barrena Andoaingo Goikoplazara iristeko. **Joseba Areizagak** azaldu zuenez, ia 90 kilometroko irteera izan zen eta, eguraldi ona izan zuten, gustura ibili ziren.

“Oso dibertigarria izan da; ibilbidea ez da oso gogorra izan eta ikuspegi ederak izan ditugu. Oso giro onean joan gara eta asko gozatu dut”, aitortu zuen **Javier Fernandez** kataluniarrak. Parte hartzaileek, gainera, antolatzaileek egindako lana txalotu nahi izan zuten. “Oso ondo antolatuta egon da guztia”, nabarmendu zuen **Swen Hamann** alemaniarrak. “Lehenengo aldiz hartu dut errepideko bizikleta, baina zirrarragarria izan da esperientzia”. **Carmelo Gomezek**, Europako Duatloi txapelketako irabazleak, antolaketa paregabea eta ibilbide zoragarria izan zela azpimarratu zuen.

WNT TALDE PROFESIONALEKO TXIRRINDULARRIEKIN BATERA

WNT enpresak profesional mailako emakumeen taldea babesten du. Horiek ere bat egin zuten larunbat goizeko irteeran. Hala, ibilbide osoan zehar lagun izan zituzten **Elise Maes** (Luxenburgo, 1992), **Anna Badeguber** (Austria 1997) eta **Natalie Grinczer** gazteak (England, 1993), besteak beste. Hirurak oso gustura iritsi ziren Andoainera eta ikusitako paisaiak nabarmendu zituzten. “Itasoa ondoan ibili gara!”, adierazi zuen zirrarrak Elisek. Anna eta Natalie ere “pozik” zeuden helmugan: “Oso ibilbide polita egin dugu WNTko bezero guztiekin batera. Gehien gustatu zaiguna itsasertzeko errepidetik joatea izan da. Ez gara sekula horrelako parajeetan ibili”.

Emakumezko txirrindulariak maiatzaren 22ra arte egongo dira Euskal Herrian. Batetik, Durango-Durango lasterketan parte hartuko dute eta, bestetik, Emakumeen Biran. Azken hori oso gustuko dutela adierazi dute. Lasterketa Iurretatik hasi eta Erreterian amaituko da, datorren hilaren 21ean.



“Oso ibilbide polita egin dugu WNTko bezero guztiekin batera. Gehien gustatu zaiguna itsasertzeko errepidetik joatea izan da. Ez gara sekula horrelako parajeetan ibili”
Anna eta Natalie txirrindulariak

“Oso dibertigarria izan da; ibilbidea ez da oso gogorra izan eta ikuspegi ederak izan ditugu. Oso giro onean joan gara eta asko gozatu dut”

Javier Fernandez

WNT multinazionalak, Andoaingo Mendi enpresak eta Andoaingo Txirrindulari Eskolak elkarlanean antolatu zuten enpresa mundua, mekanizazioa eta txirrindularitza batzeko helburuarekin



Javier Fernandez, Swen Hamann eta Carmelo Gomez WNTko kideak.



Elise Maes, Anna Badeguber eta Natalie Grinczer WNT taldeko kideak.



Kostako errepidean ibili ziren, eta partaide askorentzat ederra izan zen.



Ana Carrere alkateak hasiera eman zion lagunarteko irteerari.



KIROL ALBISTEAK

Azken jardunaldian erabakiko da play-offa



Urnieta eta Ordiziako jokalariek animo gehien eman zuten zaletuekin argazkia atera zuten partidaren amaieran.

Urnieta Balerdi Harategia taldeak 30-35 galdu zuen Ordiziaren aurka, eta berdinketa edo garaipena beharko ditu Sopelan, igandean, lau onenen arteko play-offera sailkatzeko.

Urnieta KEk lanean jarraitu beharko du. Aukera ona zeukan larunbatean, Ordizia menderatu eta 2. Nazional mailarako igoera play-offa lau onenen artean bukatzeko, baina Ordizia nagusi izan zen, eta Gipuzkoak txapelketa zergatik irabazi duen erakutsi. 30-35 nagusitu ziren Goierrikoak, eta sarri, bizpahiru goleko aldeak lortu zituzten. Atse-denaldian, dena den, 16nakoa adierazten zuen markagailuak. Etxeko taldeak gol asko jaso zituen, horietako asko kontraerasoetan edo jokaldi azkarretan, eta pixkanaka, urnietarren kementa itzaltzen joan zen. Atetik gertuko jaurtiketetan ere kamuts ibili ziren Jokin Jimenez entrenatzailearen mutilak, 19 jaurtiketa huts egin baitzituzten denera.

Urnieta KEk sailkapeneko 3. postuan daude, jardunaldi baten faltan. Azken jardunaldira, ordea, aukera ugari zabalik daude. Urnieta Soplara jokatu dute, bertako Ugeraga taldearen aurka. Bizkaitarrek 2 puntu dituzte, pasa den asteburuan Sestao 26-29 menderatu ostean, eta Urnieta menderatzen badute, lau onenen artean sailkatuko dira, berdinketak hausteko erabiltzen den elkarren arteko average-a Sestao eta Urnieta baino hobea dutelako. Urnieta baina, berdinketa edo garaipena behar dute. Lortzekotan, 2. edo 3. sailkatu-



Zaletuen babesa ikaragarria zan zen partida osoan zehar.

Senior taldeko jokalariei eta teknikariek kiroldegira hurbildu ziren guztiei Sopelara joateko ahalegina egin dezaten eskatu die

"Ileak tente jarri zaizkigu kiroldegia horrela ikustean. Lastima garaipena lortuz izana. Mila esker denei"
Jokin Jimenez

ko liriteke, inoiz ez 4. postuan. Aintzat hartzeko moduko datua da hori, igoera faseko txapeladuna, Ordizia, saihestuko lukeelako finalerdietan.

BUS ZERBITZUA SOPELARA

Galduta ere, ikustekoa izan zen harmailek zeukaten itxura, eta sortu zen giroa. 400 pertsona baino gehiago elkartu ziren, eta txoko batean jarri ziren 50 bat gaztek kantuan eta animoak ematen pasa zuten partidak iraun zuen ordu eta erdia. Markagailua kontra zegoenean ere bai, eta bukaeran, eskubaloi taldeko jokalariek babes hori eskertu zuten zaleak zeuden txokoraino joanda. Senior tal-

deko jokalariei eta teknikariek kiroldegira hurbildu ziren guztiei Sopelara joateko ahalegina egin dezaten eskatu die. Kluba bera autobusen bat antolatzekotan da, 5 euroko prezioan.

SAILKAPENA:

1. Ordizia	4/0/0
2. Ereintza	2/1/1
3. Urnieta	2/0/2
4. Egia	1/1/2

PLAY-OFFA:

Urnieta 23-21 Egia
Sestao 25-24 Urnieta
Ereintza 27-29 Urnieta
Urnieta 30-35 Ordizia

AZKEN JARDUNALDIA:

Sopela-Urnieta
Maiatzak 21, igandea. 12:15.

'Igerilari osoa' txapelketa



Ekainaren 10ean Lasarteko igerilekuan amaituko dute denboraldia.

Joan zen larunbatean **Buruntzaldea IKT** taldeko igerilariak Tolosako kiroldegian "Igerilari osoa" txapelketan parte hartu zuten. Benjamin kategoriako lehiaketan 2006an jaiotako neska-mutirik eta 2005eko mutirik parte hartu zuten. Denera, taldeko hamalau igerilari. Lau estilotan aritu ziren igerilari guztiak: 50 metro tximeleta estiloan,

100 metro bizkar estiloan, 100 metro bular estiloan eta azkenik 100 metro estilo librean. Banakako probez gain, 4x50m estilo librean eta 4x50m lau estiloetan erreleboak ere izan zituzten.

Benjamin mailakoek denboraldiari agur esango diote datorren ekainaren 10ean, Lasarte-Oriako XXVIII. sarian.

Ganbara, play-offean

Añorga 65-78 Ganbara

Aurreko asteburuan lortutako garaipenarekin, Andoaingo taldeak lehen mailara igozteko play-offa jokatzeko au-

kera eskuratu du. Elgoibarren jokatu dute larunbatean, eta irabaziz gero finala igandean Elgoibarren bertan.

Alebinak eta infantilak Gipuzkoako txapelketan



GIPUZKOAKO TXAPELKETA 2017-05-13. ATAUN

Infantil mutilak:

1. Haritz Sein (Optica Bidasoa)
2. Iñaki Errazkin (Buruntzazpi)
3. Dani Fursenko (Andoaingo)
27. Unai Galarza (Andoaingo)

29. Ibai Omeñaka (Andoaingo)
32. Jokin Jauregi (Andoaingo)
42. Iker Balbas (Andoaingo)

Infantil neskak:

1. Nahia Polo
2. Lur Zufiria (Ampo)
3. Laiene Pikabea (Andoaingo)

Andoain Herriartekoan

Andoain herriak palaz aurrera egingo du Herriartekoan, Errenteria kaleratu eta gero. Finalurrekoa Ordizia talde-

aren aurka jokatu du, Arrate pilotalekuan bertan.

ANDOAIN-ORDIZIA (PALA)
Maiatzak 19, ostirala. 22:00.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.



TOKIKOM

Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etbez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 36 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.eus. Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.eus
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.eus
Publizitatea:
Fernanda Irazu. publikitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus www.aiurri.eus
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus. Tel.: 943 300 732

Banatzaileak:

Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

MAIATZAREN 18TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

Zinema

- Andoain, Bastero**
- El Circulo
- Lar, 20. 19:30-22:00.
- Ig, 21. 19:30.
- Astl, 22. 19:30-22:00.
- Haurrentzat: **Superheroes**.
- Maiatzak 20 eta 21. 17:00.

Ikuskizunak

- Urnietan**
- Pirritx, Porrotx, Marimotots.
- Urnietan salgai: Xauxar, Bikain.
- Andoainen salgai: Aiurri, Ernaitza.
- 17:30 Egape. 7 euro.
- Maiatzak 26, ostirala.

Odol-emaileak

- Urnietan**
- Anbulatorio zaharrean.
- 18:30-20:30.
- Maiatzak 30, asteartea.

Probak

- Urnietan**
- Gimnasia artistikoa.
- 15:30-18:00 Kiroldegia.
- Maiatzak 20, larunbata.
- Txirindularitza, alebin eta infantil mailakoa.
- 16:30 Idiazabal kalea.
- Maiatzak 20, larunbata.
- Judo erakustaldia.
- 18:00-19:30 Kiroldegia.
- Maiatzak 20, larunbata.

Musika

- Urnietan**
- Musikazuzenean emanaldia, hainbat kantarirekin.
- 19:00 Sarobe. 8/10 euro.
- Maiatzak 21, iganda.
- Kepa Junkera & Sorginak**, Maletak ikuskizuna.
- 21:30 Bastero.
- Ekainak 3, larunbata.

Sariketa

- Urnietan**
- On Manuel Antonio Antia lehiaketaren sari banaketa ekitaldia, Anjel Alkainek aurkeztua. Musika eta dantza saioak.
- 18:00. Dohainik.
- Maiatzak 24, asteazkena.

Argazki-rallya

- Urnietan, Lekaio**
- Gazte eta helduen mailako lehiaketa.
- 09:30-10:00 Izen-ematea.
- Maiatzak 27, larunbata.

Emanaldia

- Andoain**
- Hogar Extremeñok ekainaren 9rako abesbatza eta dantza jaialdia antolatu du. Sarre-rak salgai daude euro batean, Ernaitza eta Stop liburutendatan, Orbel estankotan eta Elizondo tabernan.

Deialdiak

- Urnietan**
- Egape ikastolaren 50. urteurreneko afaria. Aldez aurretik izena eman behar da.
- 20:30. Oianume jatetxea.
- Ekainak 2, ostirala.

Farmaziak

- Andoain**
- Arzallus.
- Gauetz: **Etxebeste** (Hernani).
- Maiatzak 20-21.

- Urnietan**
- Gomez Justel (Hernani).
- Gauetz: **Etxebeste** (Hernani).
- Maiatzak 20-21.

Ospakizuna

- Urnietan**
- Gazte festaren ostean, ohiko ospakizun bilakatzen ari da **paella lehiaketa**. Bazkalostean poteoa iragarri dute.
- 12:00. San Juan plaza.
- Ekainak 3, larunbata.

Aisialdia

- Urnietan**
- Bidezko merkataritzan oinarrituriko talde jolasa, Gaztelekuaren eskutik.
- 17:00-20:00.
- Plazido Muxika plaza.
- Maiatzak 19, ostirala.

ZORION AGURRAK


ZORIONAK



Maiatzaren 10ean eta 22an **Ainhoa** eta **Haritz** Georg Urtaşunek 11 eta 9 urte beteko dituzte. Zorionak eta muxu haundi bana, etxekoan partetik.

ANDOAIN

ZORIONAK



Maiatzaren 18an gure amona **Mertxe** 86 urte beteko ditu. Muxu potoloa etxeko guztien partetik!

URNIETA



OSO ERRAZA eta doakoa. Zorion agurrak Aiurri astekarian: diseinua@aiurri.eus www.aiurri.eus Whatsapp: 619 163 537

ZORIONAK



Eneko Roscok 10 urte bete du maiatzaren 17an. Muxu pilobat etxeko guztien partetik! Asko maite zaitugu!

URNIETA


ZORIONAK



Izaro Irazu Romanek 10 urte beteko ditu maiatzaren 30ean. Jarrai beti bezain alai. Muxuak, etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Olaia dagoeneko 8 urte bete dituzu! Milaka muxu aitaxo, amatxo eta Janireren partez.

URNIETA

ZORIONAK



Hamabi urte bete dituzu dagoeneko, **Elena**. Muxu handia familia guztien partetik.

URNIETA

MERKATU TXIKIA

Haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko emakume euskalduna behar dugu, asteleheneretik ostiralera, Urnietan. Interesatuak: 670 855 310.

DATORREN AIURRI ASTEKARIA: MAIATZAK 25, OSTEAGUNA

XXIII. Literatur Lehiaketa ON MANUEL ANTONIO ANTIA



Anjel Alkainek aurkeztuta, Izadi hari-laukotearen eta Aukeran dantza taldearen parte hartzearekin.

Sari banaketa ekitaldia: **Maiatzaren 24an 19:00etan Saroben**

Urnietan 2017



GAZTE FESTAK 2017

MAIATZAREN 26TIK 28RA

OSTIRALA 26:
17:30 GYM KANA
20:30 MARVEL AFARIA
00:00 ELEKTROTXRANGA

LARUNBATA 27: (MAIATZ ETXURIZ)
12:00 GURPIL-GAINEKO TRIKIPOTEA
14:00 HERRI BAZKARIA (BASKALOSTEAN EGARREN)
18:00 ELEKTROTXFULA
23:00 KONTZERTUAK EGAPEN

DJ TXANKLETA

© TIKETAK XAUARREN SALGAI: 10 EUROTAN
© BAZKARIA ETA JOLASAK IDIAZABAL KALEAN EGURALDI TXARRAREN EGAPEN